

tzean, urtez urte sendotuz joango zen leku bat.

### Mundua oinaztargika

1960an argitaratu zuen *Sei poema solte* lana izan ezik, beste poema liburu guztiak *Poesia bertikala* izenpean kaleratu zituen Juarrozek, bakoitza zegokion zenbakiaz lagunduta, batetik hamalaura — azkena 1997an argitaratu zen, egilea hil ostean—. Kasu guztietan, halaber, zenbakiz izendatu zituen poemak, ia inoiz ez hitzezko izenburu bat erabiliz. Poesiaz gain, itzulpena eta saiakera era landu zituen, eta inolako apaingaririk gabeak dira haien izenburuak ere; *Poesia eta sorkuntza* (1980) eta *Poesia eta errealtatea* (1987), esate batera.

Laura Serrato urte luzez idazlearen bikotekide eta bidelagun izan zenaren esanetan, «ikaragarri» idazten zuen, baina askoz gehiago zen idatzitakotik alde batera uzten zuena. Lehen liburua 35 urterekin atera izana horrek azaltzen du Serratorentzat. «Hausnartzeko eta aukeraketa bat egiteko denbora izan zuen; batez ere, asetzen ez zuten obra asko albo batera uztekoa. Argitaratu zuenerako, bazuen irudimenezko ideia bat poesiak beretzat izan behar zuenaren inguruan. Irudimenezkoa, bat ez delako inoiz erabat heltzen halakoak erabat jakitera. Denbora behar izan zuen argitaratzeko, eta behar batek ekarri zuen hori; ez zuen esan: 'Tira, poema hauek ditut, eta publikatu ditzadan'».

Serratok kontatzen du noiznahi hartzen zituela oharrak Juarrozek; adibidez, hura gidatzen eta Serrato kopilotu zihozela eskatzen ziola otutakoak apuntatzeko; nahiz eta gero inoiz gutxi uzten zuen ideia bera ekarri zionaren arrastorik poemaren azken bertsiotan. Ez pertsonarena, ez lekuarena, ez garaiarena. Kondentsaziora jo zuen; ihes egin ohiko metrikatik. Hala dio poema batean: «Nire begiek bilatzen dute/ azpian guri eusten/ besterik ote dagoen ikustearren/ zapatak kenarazten dizkigun hori,/ airea existitzen ote den jakitearren/ txori bat asmarazten diguna».

Esan zuen gizakiak «oinaztargien abiaduran» hautematen duela mundua, eta errealtate iheskoraren gaineko «ikuspegia zabaltzea» dela lengoia poetikoak munduan betetzen duen «funtzio arraroa».

Sari ugariren bidez heldu zitzaion aitortza Juarrozi, eta hizkuntza ugaritara itzuli da haren obra. Euskarara, aurten ekarri ditu haren hamazazpi poema Iñigo Astizek, eta *Armiarma.eus* webgunek jarri ditu eskura. ●


### KRITIKA

## Maitasunaren aldarmioak

### Irati Majuelo

**E**makume bat bere maitale ohiaren hiletan. Emakume bat hausnarrean, izan zuen maitasunari, izan ez zuenari eta bilakatu zenari buruz. Horrela abiatzen da Jaioren azken eleberria, eta amorantearen heriotzak eragindako lurrikarak antzaldatura, Olgaren pentsamenduetan murgiltzen da ondoren, maitasunaren zein botere-harremanen aldarmioak antzemateko asmotan.

Izan ere, lehen pertsona mintzo da protagonista nobela osoan zehar; aldizka narratzaile orojakilearen lekua hartzen du, aldizka Martini zuzentzen zaio zuzenean, hildako pertsonaiaren bidez barne-bakarriketarako bidea zabaltzen duelarik. Hartzaile-aldaketa horiek joko interesgarria egiten dute berez pertsonaia kopuru txikia duen eleberrian, perspektiba aldaketarako



### 'MAITASUN KAPITALA'

Egilea: Karmele Jaio.

Argitaletxea: Elkar.

aukera ematen baitio idazleari. Hala ere, kontakizuna Olgaren ahotsetik jasotzeak desoreka nabarmena sortzen du: Martini buruzko gain-informazioa nabarmena da desamodioa bizi duen protagonista nagusiarekin alderatuta. Istoriok, beraz, Olgaren gorputza eta pentsamendua badu ere, begiak Martinentzat ditu ia esklusiboki. Maitasunaren erruz norbere izatea eta ingurua desagerraraztea eleberriaren muinera darama horrela Jaiok.

Espazioak urriak dira halaber, batez ere Olgaren buruan gertatzen baita nobela, haren baitan eraikitzen eta deseraikitzen baita Martinekin izan duen maitasun istorioa. Protagonistaren obsesioaren erakusle da eleberriaren hausnarketek hartzen duten leku handia, baita keinu txikiei edo gizonaren mezu laburrei ematen zaien garrantzia eta horiek interpretatzeko eta berrinterpretatzeko saiakerak ere.

Alde horretatik, interesgarriak dira maitasun erromantikoari kritika egiten dioten erreferentzia artistiko eta literarioen txatalak, Laiaren tesiaren aitzakiari esker han-hemenka agertzen direnak. Olgaren gogoetei arnasa ematen diete, eta kontrapuntua osatzen dute nobelako maitasun-harreman nagusiarekin. Era horretan, Jaiok tradizio literario eta artistiko horien ildoan kokatzen du bere eleberria, gaia aurretik landu duten ezinbesteko au-

toreei aitortza egiteaz batera. Besteak beste, Ernaux-ren aitopenekin, Milleten kritikekin, Kollontairen proposamenekin, Kahloren kontrasteekin berezko unibertso bat osatzen doa eleberriaren zehar, azkenerako Olgaren ikaspenekin bat egiten duena.

Hala ere, tesi-eleberri bat izanik, istorioan bertan lan akademiko bat garatzea baliabide arriskutsua bilakatzen da zenbaitetan. Azken kapituluetan, teoria feministak ikaslearen idazketatik Olga, Bakarne eta Laiaren arteko elkarriketetara egiten du jauzi, eta behartu samarrak gertatzen dira. Ematen du Laiaren posizioa ideia batzuk azaltzeko baliatzen dela batik bat, eta horrek apur bat hankamotz eta zurrun uzten du bai pertsonaia, bai azaleratzen dituen diskurtsoak. Haatik, maitasunari buruzko lan interesgarria osatu du Jaiok, bizipenen eta gogoetaren arteko elkarriketa ekidinezinean. ●

### KRITIKA


## 'Sitcom' bat

### Imanol Mercero

**L**iburu honetan murgiltzen bazara, prest egon behar duzu fantasia dosi handi xamarra onartzeko, liburuak hainbat lizentzia —oso zilegi direnak— hartzen baititu espazioari eta materiari dagokienez.

Liburua bi partetan banatuta dago, abentura banarekin, segidako kronologian. Lehen partean, protagonistaren eraldaketa aurkezten zaigu aurrenik —superheroi baten jaiotza dena—, eta segidan, abentura dator. Bigarren goan, amaiera irekia duen beste abentura bat.

Forma eta estetika oso zinematografikoak dauzka narrazioak, gaztetxoaren telesail baten modukoa, *sitcom* horietako batena. Era berean, superheroiaren ezaugarriak esku artean dugun liburu fisikoarekin lotuta daudenez, irudigintza ezinbesteko osa-



### 'LINA PLASTILINA'

Idazlea: Izaro Arroita

Ilustratzailea: Josevisky.

Argitaletxea: Elkar.

gaia da. Uztarketa agerikoa da paperaren, letren eta irudien artean, eta, batzuetan, hirurak narrazioarako osagai bihurtuta agertzen dira.

Ilustrazioak komiki erako lanketa erakusten du, marrazki-film baten fotogramak balira bezala. Narrazioari tonu mina jartzen diote, karrankaria ere bai, testuan dagoen gozo ukituekin kontrajartzen. Obra borobiltzeko oso lagungarria. ●

### KRITIKA

## Argi eta garbi

### Imanol Mercero

**I**puin ilustratu honetan, irakurlea eskutik eramaten da, zer eta izenburua ematen dion galdera nork egin duen jakin dezagun, zergatik eta protagonista galdetzaille porrokatua delako.

Ezkerretara testua dugularik eta eskuinean ilustrazioa, baieztapen eta galde-erantzun ulerterrazak egiten dituen pertsona baten bizi ziklo osoa ikusiko dugu. Eta hemen dago gakoa: estilo xume (naif) betean, protagonista haur denetik agure den artekoa erakusten zaigu, ezinbestean ondorioztatzeko bitzta zirkulu batez irudika daitekeela, zeinetan hasiera eta amaiera gurutzatzen diren, ez zehazki leku berean, baizik eta leku paretsu batean, espirala nola.

Ilustrazioek tonuari eutsi diote, eta informazio osagarri zenbait eskaintzen dute.



### 'NONDIK SORTZEN DA HAIZEA?'

Idazlea: Xabier Mendiguren.

Ilustratzailea: Mirari Sagarazu.

Argitaletxea: Elkar.

Jarrera jolastia ere erakusten dute, idatzitakoaren interpretazioak proposatuz. Guztira, errepikapen hutsa saihesten duen narrazio estetiko osatu dute. Irudiek sinplifikaziorako joera dute, haur literaturan askotan gertatzen den legez, baina detailerako gogoia galdu gabe. Pastel tonalitateko paleta zabala erabili da gehienbat, koloretako arkatzen estetika gogorazten dutelarik. ●